


UNITATE DIDAKTIKOA

GIZA BALIOEI BURUZ

**KEINUKA MUGAZ GAINDI...
UN GUIÑO UN SUEÑO**


HAURREK EGINDAKO GIZA BALOREEI BURUZKO PELIKULA
PELICULA REALIZADA POR NIÑOS SOBRE LOS VALORES HUMANOS



PROTAGONISTAK:

Urrtxindorra ikastola - escuela 26 de Julio (Moncada) - escuela Frank Pais
Zurbaran ikastetxea - escuela Arcid Dubergel - escuela Dia de la Victoria
ntxixu ikastola - escuela Americo Cesar Deslis Hdez. - "Kukuke" antzerki eskola
escuela Eduardo Ortega Rodriguez - "Kurkuluxetan" antzerki eskola - escuela Pastor
Martinez Rodriguez - Artxandape ikastola - escuela Abel Santamaria Cuadrado
Lemoako ikastetxea - escuela Eduardo René Chibas Rivas - escuela 2 de Diciembre

BABESLEAK - PATROCINADORES:

- GIZA BALIOAK EZAGUTZEKO ETA BULTZATZEKO
- EDUKI ETA JARRERA AURRERAKOIAK INDARTZEKO
- NORBERAREN NORTASUNETIK ABIATUTA, DENOK ELKAR ERRESPETATZEKO

Zer dira Giza Balioak?

- Idatz itzazue arbelean ezagutzen dituzuen giza balioak.
- Ondoren, azter ezazue bakoitza eta bila ezazue beraien kontrakoa.
- Harreman ezazue giza balio bakoitza gizarte eredu ezberdinekin.

Zuen ustez, herritarrek giza balioei ematen dieten garrantziak zerikusirik dauka gizarte ereduarekin?

- Zure herrian giza balioak errespetatzen eta bultzatzen dira? Zein kasutan ez?

Zure herria solidarioa da? Jar ezazu adibideren bat.

Hitzen enkantea:

Helburua zera da: jakitea zer nolako garrantzia ematen dieten giza balio ezberdinei.

Badauzkagu hainbat hitz idatzita arbelean. Lehenik eta behin, hitz guztiak irakurriko dira eta ondoren enkante bat egingo dugu guztiekin. Hitz bakoitzak gutxieneko balore bat edukiko du enkanterako. Persona bakoitzak ehun puntu edukiko ditu gastatzeko; puntu hauek kartulinen bidez islatuko dira, bileteak izango balira bezala. Hitz zehatz baten enkantea amaitutakoan, ikasle ordaintzaileak saski batean balore hori jarriko du. Horretarako hitz bakoitzerako saski bana beharko da. Gainera, enkantean izandako hitz bakoitzaren azkenengo balorea apuntatuko da.

Enkantea bukatu eta gero, parte hartzaileek erosi dituzten hitzak irakurriko dituzte eta azalduko dute zergatik den hain garrantzitsua hitz hori eta zer nolako eragina daukan beraien bizitzan. Bestetik, hitz garestienak zeintzuk izan diren eta zergatik eman zaien balore hori aztertuko dugu.

Enkantean jarriko diren hitz batzuk honako hauek izan litezke: askatasuna, berdintasuna, ordena, errespetua, tolerantzia, lehiakortasuna, adiskidetasuna, zintzotasuna, pakezaletasuna, iraultza, etab...

Dilema moralak:

Taldearen ezaugarriak kontuan harturik, dilema moral bat planteatuko da. Ondoren, ikasleen arteko eztabaida irekiko da, egoera aztertuz eta irtenbide bat bilatuz.

AITORPEN BAT LORTZEA

Juan eta Nelson, orain dela hilabete gutxi talibanen erasoak geldiarazteko, Afganistanera joan den ejerzito baten soldadu bi dira. Egun batean, patruilatzen ari zirenean, taliban talde batek eraso egin zien eta beste bi kide bahitu egin zituzten. Egun gutxitara, talibanek, ejerzito horrek dauzakun preso guztiak askatzea exijituko du. Hau egin ezean, bi bahituak garbituko ditu. Orduan, ejerzitoko komandanteak honako agingu hau ematen du: bi taliban horiei itaunketa egitea jakiteko non dauden bi soldadu bahituak; eta informazio hori lortzeko baliabide guztiak erabil ditzatela, baita tortura ere.

Juan eta Nelsonen tortura erabili behar dute bi taliban horien kontra jakiteko non dauden beraien kideak?

ZAPALDUTAKO HAUREK EGINIKO PRODUKTUAK EROSTEA

Orain dela urte batzuk, nazioarteko prentsak zenbait entpresa multinazional salatu egin zituen, Hirugarren Munduan ezarritako lantegietan haurrak erabiltzen zituztelako (horien artean, arropa eta kirol zapata markadunak eta famatuak). Argitaratutako erreportajeen arabera, lantegi horietan zeuden lan baldintzak eskandalagarriak ziren. Era honetan, entpresa horiek ekoizten zuten produktua askoz merkeago ateratzen zitzairen, Giza Eskubideak eta langileen lan eta sindikal eskubideak errespetatzen zituzten nazioetan ekoiztuak izan balira baino. Multinazional horietariko batzuek justifikazio gisa, zera esan zuten: haiek ez zituztela zuzenean ekoizten, Estatu horietako entpresa batzuei patentea ematen zitelako (alegia, ekoizpenaren subkontratazioa egiten zuten), eta beraz, haiek prozedura guztiaz arduratzen zirela. Multinazional hauek ez zutela ezer jakin (haurren oinarriko eskubideak etengabe bortxatzen zirela) eta informazio guztia prentsaren bidez helarazi zitzairela baieztatu zuten. Zuk jakingo bazenu kirol arroparen entpresa multinazional batek horrela jokatzeko duela, marka horren arropa erosiko zenuke, merkeagoa eta politagoa izan arren?

PROSTITUZIOA LEGALIZATZEA

Prostituzioa herri askotako arazo larria da. Emakume asko dira prostituzioa egiten dutenak, haietariko gehienak oso baldintza txarretan eta, maiz, mehatxupean zapaltzen dituzten eta prostituitzera behartzen dituzten sare gaizkileek bultzatuta. Gure herrian legala ez den arren, argi eta garbi praktikatzen da.

Zenbait kolektibok prostituzioaren legalizazioa aldarrikatu dute, legez araututako beste lan bat bezala, horrela egoera hobetuko litzatekeelakoan eta emakumeak zapalduak izango ez liratekeelakoan. Gobernuak ahalmena dauka eskaera horri erantzun bat emateko eta prostituzioa beste lan bat bihurtzeko; baina, aldiz, badaude beste talde batzuk prostituzioa inoiz legalizatu beharko ez litzatekeenik esaten dutenak, pertsonaren degradazioa erakarriko litzatekeelako, bai gizon zein emakumeentzat.

Gobernuak prostituzioa legalizatu beharko luke edo gaur egun dagoen bezala mantendu?

COVENTRY-KO BONBARDAKETA

II. Gerra Mundialean, Ingalaterrako zerbitzu sekretuek armada alemaniarrek zerabilen "Enigma" izeneko ezkutuko kodea aurkitu zuten. Deszifratu zuten lehenengo mezuetariko bat hauxe izan zen: 1940ko apirilean Coventry hiria bonbardatu eta suntsitzeko plana. Estatu Gorenak eta Lehenengo Ministroak, Churchill, erabaki bat hartu behar izan zuten.

Hiriko biztanleriari abisatu ahal zieten eta ebakuazioa antolatu hildakorik gerta ez zedin. Abisatzen bazuten, alemaniarrek kontura zitezkeen haien kodea dagoeneko aurkituta zegoela, eta ondorioz, berriro aldatuko zuketena eta ingelesek ez zituzketen haien planak ezagutuko, hainbat bizitza ezin izango zuketalarik salbatu.

Churchillek Coventry-ko populazioari abisua pasatu behar zien edo isilik gelditu?

Bazen behin mundu berri bat:

5 ikaslez osaturiko taldeak egingo dira. Ikasle bakoitzak beheko aldean agertzen den fitxa edukiko du. Aktibitatea horrela planteatzen da:

Lur planetan populazioaren hazkunde izugarria gertatzen ari da; baliabideak eta espazioa gero eta urriagoak dira. Nazioarteko Batasun Handiak Lurraren kolonia bat Marte-n egitea proposatzen du. Pertsona ezberdinez osaturiko taldea da: herri, sexo, arraza, kultura, erlijio, eta abar desberdinak. Koloniara eraman daitekeen materiala oso mugatua da. Guztion artean erabaki behar dugu zer nolako balioak eramango ditugun.

Saioaren garapena:

Talde bakoitzak proposatzen dituen balioak irakurriko ditu; ondoren komentatuko dute eta beraien garrantziaz mintzatuko dira.

Guztien artean koloniaren funtzionamendu onerako ezinbestekoak diren 3 balioak aukeratuko dituzte. Beste berri batzuk ere proposa litezke. Aukeraketa arrazoitu beharko da.

Beste aukera bat hau da: kolonian lortu beharko duten helburuaren arabeko balioak aukeratzea. Esatebaterako: garapen ekonomiko handia lortzea, giza garapena lortzea, kultur garapena lortzea, etab.

Aktibitatearen Helburuak:

- Gure artean ditugun giza-etiko balioak aztertzea.
- Gure gizartearen zutabeak, balioen ikuspuntutik, aztertzea.
- Norberaren balioen eskala aztertzea.
- Lehentasunezko balioak aurkitzea.

FITXA:

Askatasuna,
Leihakortasuna,
Motibazioa,
Ardura,
Paso egitea,
Kontsumismoa,
Zentzu kritikoa,
Apaltasuna,
Independentzia,
Inkonformismoa,
Adiskidetasuna,

Pazientzia,
Aberastasun,
Elkartasuna,
Jakinduria,
Experientzia,
Bekaizkeria,
Mendekua,
Gorrotoa,
Injustizia,
Laguntasuna,
Errespetua,
etab.

Hitz egin dezagun filmari buruz:

Filma, osorik edo zatika ikus daiteke, landu edo aztertu nahi diren balioen arabera. Izan ere, taldearen ezaugarriak kontuan harturik eta landu nahi ditugun edukien arabera, zenbait aktibitate proposatzen dira.

- Eszena ulertu duzue?
- Pertsonaia bakoitzaren portaera aztertu.
- Zerekin zaudete ados eta zerekin ez?
- Hau bezalako antzeko egoerak gure inguruan ikusten dira?
- Zer egin genezake hobetzeko?

Eszenen orden kronologikoa eta bakoitzak islatzen duen balio:

<u>MINUTUA</u>	<u>GIZA BALIOA</u>	HEMEN AIPATZEN DIREN BALIOEZ GAIN, ESZENA HAUETAN BESTE BALIO BATZUK ERE AGER DAITEZKE, GAI IZANGO ZINATEKE IDENTIFIKATZEKO?:																
8,21	ADISKIDETASUNA	<table border="1" style="width: 100%; height: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr><td style="height: 30px;"></td></tr> <tr><td style="height: 30px;"></td></tr> <tr><td style="height: 30px;"></td></tr> <tr><td style="height: 30px;"></td></tr> <tr><td style="height: 30px;"></td></tr> <tr><td style="height: 30px;"></td></tr> <tr><td style="height: 30px;"></td></tr> <tr><td style="height: 30px;"></td></tr> <tr><td style="height: 30px;"></td></tr> <tr><td style="height: 30px;"></td></tr> <tr><td style="height: 30px;"></td></tr> <tr><td style="height: 30px;"></td></tr> <tr><td style="height: 30px;"></td></tr> <tr><td style="height: 30px;"></td></tr> <tr><td style="height: 30px;"></td></tr> <tr><td style="height: 30px;"></td></tr> </table>																
12,30	SENIDETASUNA																	
15,52	NAGUSIEKIKO ERRESPETUA																	
18,07	MAITASUNA ETA ZORIONTSU SENTITZEA																	
20,08	ESKUZABALTASUNA																	
24,48	MAITASUNA ETA ZORIONTSU SENTITZEA																	
27,06	ADISKIDETASUNA																	
31,15	BERDINTASUNA																	
34,10	LANGILE IZATEA																	
37,23	NAGUSIEKIKO ERRESPETUA																	
39,53	UMILTASUNA ETA HARROTASUNA																	
42,41	NATURAREKIKO ERRESPETUA																	
45,02	NATURAREKIKO ERRESPETUA																	
48,40	ARDURATSU IZATEA																	
50,58	NAGUSIEKIKO ERRESPETUA																	
52,30	ESKUZABALTASUNA																	
57,13	LANGILE IZATEA																	
1,00,16	BERDINTASUNA																	
1,03,41	NAGUSIEKIKO ERRESPETUA																	
1,04,41	UMILTASUNA ETA HARROTASUNA																	

Dramatizazioa:

MIMOA:

Norbaitek giza balio ezberdinak, astiro aipatzen dituen bitartean, gure gorputzaz baliaturik, jarrera bat eta aurpegi espresio bat adieraziko ditugu.

Binaka ipinita, giza balio baten kontrako jarrera adierazten duen egoera bat prestatuko dugu, ondoren beste kideen aurrean antzezteko.

SKETXA:

Lauzpabosteko pertsonen taldetan jarrita, sketx txiki bat pentsatu eta prestatuko dugu (hasiera, garapena eta amaiera). Hasieran, giza balioen kontrako egoera bat islatu beharko da, baina garapenean zehar irtenbide bat bilatuko dugu, mezu positibo bat bilatuz amaierarako.

Kontadazu ipuin bat:

Ipuin bat asmatu beharko dugu eta bertan, gutxienez, bi giza balio agertu beharko dira. Apaintzeko, marrazki bat egingo dugu ipuinarekin lotuta

- Ondoren, gure ikaskideen aurrean irakurriko dugu eta haien iritzia eskatuko diegu; halaber, ea bi balioak identifikatu dituzten.
- Ipuin guztiekin liburu bat egingo dugu.
- Eta animatzen bagara, ipuin bat edo bi aukera dezakegu eta eszenan ipini (dramatizatu)

Irratsaioa:

Ikasgela taldetan banatuko dugu irratsaioaren zati ezberdinak prestatzeko:

- Hasiera, bitarteko eta amaierako musika.
- Istorio txiki bat prestatu, ondoren eztabaida bat antolatzeko (batzuk alde eta beste batzuk kontra)
- Iragarkiak
- Elkarrizketa pertsona batekin edo birekin.

ONDOREN, IRRATSAIOA BESTE IKASGELETAN EMITITUKO DUGU.

Bertsolaritza:

Bila itzazu giza balioei buruzko bertsoak (nork idatzi zituen, noiz, zer adierazi nahi duten,...)

Egin ditzagun gure bertsoak: Aukeratu gai bat eta egizu bertsoa, neurria eta soinua aukeratuz. Azkenik, batu itzazue bertso guztiak eta egin ezazue liburu bat.

Marrazketa:

Aukeratu balio bat edo pelikularen eszena bat eta marrazki baten bidez adierazi zer esan nahi duen balio horrek.

Ikastetxe edo auzoko horma batean marraztu ezazue giza balioei buruzko mural bat. Errealista edo abstraktua izan daiteke.. Gehien gustatzen zaizuen!

Goazen abestera!:

4 edo 5 pertsonez osaturiko taldetan banatuko gara:

- Giza balioei buruzko abesti bat bilatuko dugu...etxean, internet-en, libururen batean,....
- Ikasgelako gainontzeko ikaskideei azalduko diegu zergatik aukeratu dugun abesti hau, nork konposatu duen, etab.
- Abestiarekin harremanatutako koreografia bat asmatuko dugu.
- Eta azkenik, beste ikaskideen aurrean abestu egingo dugu eta koreografia dantzatuko dugu.



Denon mundua/El mundo de tod@s:

Bakoitzak askatasun bat dugu,
bakoitzaren askatasuna.
Baina askatasun horretan besteen askatasunak
kabitzen badira, askozaz hobe.

Bakoitzak arrazoi bat dugu,
bakoitzaren arrazoia.
Baina arrazoia horretan besteen arrazoiak
kabitzen badira, askozaz hobe.

Bakoitzak kultura bat dugu,
bakoitzaren kultura.
Baina kultura horretan besteen kulturak
kabitzen badira, askozaz hobe.

Bakoitzak mundu bat dugu,
bakoitzaren mundua.
Baina gure munduan beste mundu guztiak
kabitzen badira, askozaz hobe.

Cada uno tenemos una libertad,
la libertad de cada uno.
Pero si en esa libertad caben las demás
libertades, mucho mejor.

Cada uno tenemos una razón,
la razón de cada uno.
Pero si en esa razón caben las demás
razones, mucho mejor.

Cada uno tenemos una cultura,
la cultura de cada uno.
Pero si en esa cultura caben las demás
culturas, mucho mejor.

Cada uno tenemos un mundo,
el mundo de cada uno.
Pero si en nuestro mundo caben todos los otros
mundos, mucho mejor.

Abesti honen erritmoa oso gogoraeraza da. Ausartuko zinateke estrofa berriak egiten?

**HELDUTASUNA ADIERAZTEN
HASTEN DA GURE KEZKA
GAINERAKOENGATIK
HANDIAGOA DELA
SENTITZEN DUGUNEAN,
GU BERENGATIK BAINO.**

**COMIENZA A MANIFESTARSE
LA MADUREZ CUANDO
SENTIMOS QUE NUESTRA
PREOCUPACIÓN ES MAYOR
POR LOS DEMÁS QUE POR
NOSOTROS MISMOS.**

umegunea@gmail.com

www.kurkuluxetan.org